

# LUK

## Larrabetzuko Umeen Kontseilua

### **BILERAREN LEKUA ETA DATA:**

2018ko maiatzaren 2an, goizez, Larrabetzuko Errebaleko eraikinean.

### **GAI ZERRENDA**

#### **1- PARTE-HARTZAILEAK:**

2018 Larrabetzuko Umeen Kontseiluko kide hauek: MARTIN Gomez, EKAIN Eloseggi, ANE Luna, KEPA Escribano, AMAIUR Imaz, IZARO Garaiurrebaso, LUR Iturbide, ASIER Muñoz, ION García, NAIMA Echevarria, ZIRATS Perez, AMAIA Rioboo.

+ Hezitzaileak: Peru eta Kattalin.

#### **2. BILERAREN HELBURUAK:**

- Umeen Kontseiluak Udalak sustatutako Larrabetzu 2025 partehartze prozesuan parte hartu du gaurkoan, bertan lehen aldi honetarako proposatzen diren gaietako bat landuz -EUSKARA- herri mailako proposamenak egiteko. Euskararen erabilpena Larrabetzun sustatzeko umeen ekarpenak biltzea izan dugu helburu beraz.

#### **3- BILERA:**

- Galdetegi luze bat eta bi mahai prestatu ditugu zazpina aulkirekin. Partehartze prozesuari buruzko sarrera labur bat egin ostean bi taldeak galdetegia erantzuten jardun dira, bakoitza hezitzaile batek lagunduta.

- Galdetegiaren zentzua euskararen erabilpena eta zentzuari buruzko erantzun ezberdinak bilatzean datza, zenbait galderatan espero zitekeenaren kontrako galdera ere eginez adibidez, edo galdera batzuetan gutxienez zazpi erantzun posible ezberdin eskatuz. Ibilbide diskursibo ezohiko bat bilatu da, gero bukaeran euskararen erabilera sustatzeko proposamen ezberdinak eskaintzen zitzaten.

-Hezitzaile bakoitza arduratu da galderak irakurri zein erantzun guztiak apuntatzeaz. Guztiz anonimoki hartu dira emandako erantzunak, ume bakoitza ere epaitua senti ez dadin, espero duguna zer den hain argia den gai honetaz ari garenez.

-Bukaeran talde bakoitzak beste taldeari kontatu dio laburki zer nolako proposamenak egin diren.

#### **4- ETORKIZUNERAKO EGINBEHARRAK:**

-Bilera honetan jasotako ekarpen guztien txostena Larrabetzu 2025 prozesura gehitzea.

-Azken bilera Alkatearekin batera prestatzea: 2017ko feed backa; aurtengo lanen errepassoa, bukaera ekitaldia (oparirik?) ...Skate Parkaren gaia landuko dugu bilera horretan?

-Jai batzordearekin ere berba egin behar da, ea antolatutako jarduera horiek nork eta nola burutuko dituen...